

BERRI PAPERA 25



Haraneko etorb. 2, behea
Avda. del Valle 2, bajo
Tel. 620 993 098

2025eko ZIURTAGIRIA jaso duten entitateak

Entidades que han obtenido el **CERTIFICADO 2025**



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que han adoptado y están desarrollando medidas para el uso del euskera.

1. ABODI albaitariza zentroa
2. ALTXE Gestión / Kudeaketa S.L.
3. ANDRÓMEDA Belardenda /Herbolario
4. Barabatu Barañaingo Batukada
5. Barañaingo CONTIGO-ZUREKIN
6. Barañaingo EUSKAL KANTAK
7. Barañaingo GEROA BAI
8. Barañaingo IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA
9. Barañaingo PODEMOS-AHAL DUGU
10. Coral Barañaín ABESBATZA
11. Cubillas-BARRICART Botika-Beatriz
12. Fernando GOGORZA Harategia/Carnicería
13. HAIZE ARTEAN (Jubilatuuen elkarte/Club de Jubilados Entrevientos)
14. IRATXO Taberna
15. KAIOA Café-Bar/ Taberna
16. KARRAPE Taberna Los Porches
17. LARRAIN Elkarte
18. LURGORRI Taberna Jatetxea
19. MURUZABAL Bizikletak/ Bicicletas
20. OIHALAK denda
21. PATXI SAGARDOTEGI Ibiltaria
22. SADA Hortz Klinika /Clínica dental
23. TECNIAUTO Auto Lantegia/Taller coches
24. Txaranga IGANDEA Elkarte
25. Viajes MARFIL S.L.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera.

26. Akelamendi Elkarte
27. Alaitz Familia Elkarte-Apyma
28. Arritxu Ileapaindegia/ Peluqueria
29. Barañaingo Jai Batzordea
30. Barañaingo Trikitilari Eskola
31. EH Bildu Barañaín
32. Mugarri Guraso Eskola
33. Plazaberri Elkarte



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera y lo utilizan como idioma de trabajo.

34. Haizea Kultur Elkarte
35. Harizti Barañaingo Dantza Taldea
36. Sahats Fundazioa



Onomastikaren adarra, leku-izen propioen jatorria eta haien etimoen esanahia aztertzen dituen.



Rama de la onomástica que estudia el origen de los nombres propios de lugar, así como el significado de sus étimos.



TOPONIMIA

LURGORRI LARRAINPEA ELIZPE AKELAMENDIA

'Tierra roja'. Lur 'tierra' + gorri 'roja'. Lur gorria (1723); Lur gorri (gorris) (1837). Ahoz Losgorris zen, baina aldaera zaharrek izenaren esanahia argitzen dute.

'Bajo las eras'. Larrain 'era' + -pe 'debajo' + -a 'lo'. Larrainpea (1723). Herriko larrinetatik behera zegoen alderdia Iruñeko mugatik hurbil.

'Bajo la iglesia'. Eliz(a) 'iglesia' + -pe 'debajo'. Barañaingo elizaren azpian dagoenaren izena.

'Monte o cerro de Akela'. Akela + mendi 'cerro, monte desarbolado'. Aquelamendia (1727). Ahozko ebakera Kalamendia izanik. Lehen osagaia iluna zaigu, bigarrena gardena: mendi 'inguruko eremutik nabarmen goratzen den lur zatia'. Nafarroan mendia zuhaitzik gabeko toki zen eta oihana basoa zuena.

BERRI PAPERA 25



Ayuntamiento de Barañain
Barañaingo Udala

Udalaren euskara
zerbitzua
Servicio municipal
de euskera

bai
euskarari
elkartea
LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

Haraneko etorb. 2, behea
Avda. del Valle 2, bajo
Tel. 620 993 098



2002



2003



2004




2005



2006



2007



2008



2009



2010



2011



2012



2013




2014



2015



2016



2017



2018



2019



2020



2021



2022



2023



2024



2025

Legislatura 2023-2027 legegintzaldia;
alcaldesa/ alkatea:
Maria Lecumberri Bonilla

(Argazkiak/ Fotos: Euskara arloa)

ZAHARRAK BERRI

Halaxe erantzuten diogu “Zer berri?” galdetu digunari, gauzek ohi bezala segitzen dutela adierazi nahi diogunean. Eta garai itxuraz aldakor hauetan ere, bada bere horretan jarraitzen duen hainbat kontu. Esaterako, gure herrian gure hizkuntzan bizi nahi dugun herritar nafar euskaldunok horretarako modurik ez izatea. Zaharrak berri. Egunero-egunero urratzen dizkigute gure hizkuntza-eskubideak behin eta berriz, egunero gogorarazten digute gure bizitokiaren arabera bigarren, hirugarren edo laugarren mailako herritarrak gara, tokian tokiko udalarekin, foru administrazioarekin edo estatu espainiarrak zuzenean kudeatzen duenarekin harremanetan jarri orduko. Zaharrak berri. Udaletxean, osasun-etxean, ospitalean, erregistroan, auzitegian, unibertsitatean, kontserbatorioan eta beste hamaika tokitan ez gaituzte euskaraz artatzen maizegi, ez dugu ikasi nahi duguna euskaraz ikasterik oraindik ere. Zaharrak berri. Zergak ordaintzeko garaian baino ez gara lehen mailako herritarrak. Zaharrak berri.

Baina arestian aipatutako galderari, “Zer berri?” ohiko horri, alegia, bestela ere erantzuten diogu zenbaitetan, jostari: “Zer berri?”, “Iaz hildakoak ez direla ageri”. Eta hitz-jokoari bide emanda, horren aldaera hau erabiltzen hastea ez

litzateke txarra, zenbait politikari profesionalen “Zer berri?” zuriari erantzutean: “Euskararen ofizialtasunik ez dela ageri”. Izan ere, gezurra badirudi ere, berrogei urte beteko ditu munduan parekorik ez duen euskarari buruzko foru lege itxuragabeak. Zaharrak berri eta lege aldaketarik ez da ageri.

Ageri direnak ere badira, ordea. Agerikoa da azken hamar urteotan Iruñeko, Gasteizko eta Madrilgo gobernuak osatzean edo haiei sostengua ematean euskararen ofizialtasuna zenbateraino lehenetsi duten Geroa Baik, EH Bilduk, EAJK eta abarrek. Agerikoa da araugile eta legegile behar luketenak hor dabiltzala erdaldunak “limurtu” edo “seduzitu” nahian, ganorazko neurri politikoak hartzen ari beharrean.

Eta euskaltzaleon garaia omen dugu oraingo hau. Eta noiz ez? Lehen ere hala zen, eta aurrerantzean ere hala izanen da. Inork ez baitzikigu babak eltzetik aterako euskaldun euskaltzaleoi, inork ez baitigu oparirik eginen. Beraz, hortzak estututa bada ere, eutsi diezaiogun geureari eta segi dezagun eguneroko inurri-lan isilean, gure herrian gure hizkuntzan bizitzea helburu hartuta. Beste behin ere, zaharrak berri.

(Joxerra Olano, Bai euskarari egitasmoaren kudeatzailea/
Gestor del proyecto Bai euskarari)

Langile elebidunak
arreta euskaraz
eskaintzeko
prestatuta daude;
beraz, erabili euskara
udalarekin dituzun
harremanetan.



El personal bilingüe
está preparado
para atender en
euskera a la
ciudadanía que así
lo desea.

LG NA 678-2026

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



euskarabidea



(Argazkia/ Foto: Agustin Peña)

ZIURTAGIRIA 2024 jaso duten entitateak

Entidades que han obtenido el CERTIFICADO 2024

* BIDEAN:

1. Abodi albaitariza zentroa
2. Altxe Gestión /Kudeaketa
3. Andrómeda Belardenda /Herbolario
4. Barañaingo Contigo-Zurekin
5. Barañaingo Euskal Kantak
6. Barañaingo Geroa Bai
7. Barañaingo Izquierda Unida /Ezker Batua
8. Barañaingo Podemos-Ahal Dugu
9. Coral Barañain Abesbatza
10. Cubillas-Barricart Botika - Beatriz
11. Fernando Gogorza Harategia/Carnicería
12. Haize Artean (Jubilatuena elkarte/ Club de Jubilados Entrevientos)

13. Iratxo Taberna
14. Kaioa Café-Bar/ Taberna
15. Karrape Taberna Los Porches
16. Larrain Elkarte
17. Lurgorri Taberna Jatetxea
18. Muruzabal Bizikletak/ Bicycletas
19. Oihalak
20. Patxi Sagardotegi Ibiltaria
21. Sada Hartz Klinika /Clínica dental
22. Tantatic Diseinu eta Garapena/ Diseño y Desarrollo
23. Tecniauto Auto Lantegia/Taller coches
24. Txaranga Igandea Elkarte
25. Viajes Marfil S.L.

* ZERBITZUA EUSKARAZ:

26. Akelamendi Elkarte
27. Alaitz Guraso Elkarte-Apyma
28. Arritxu Ileapaindegia / Peluqueria
29. Barabatu Barañaingo Batukada
30. Barañaingo Jai Batzordea
31. Barañaingo Trikitilari Eskola
32. EH Bildu Barañain
33. Mugarri Guraso Elkarte
34. Plazaberri Elkarte

* ZERBITZUA eta LANA EUSKARAZ:

35. Haizea Kultur Elkarte
36. Harizti Barañaingo Dantza Taldea
37. Itsaso Bakedano (Sexologia kontsulta)
38. Sahats Fundazioa



Euskararen
bidean

Certificado dirigido a las
empresas, comercios y
entidades que han
adoptado y están
desarrollando medidas para
el uso del euskera.



Zerbitzua
euskaraz

Certificado dirigido a
las empresas,
comercios y
entidades que
ofrecen sus servicios
en euskera.



Zerbitzua eta
lana euskaraz

Certificado dirigido a las
empresas, comercios y
entidades que ofrecen sus
servicios en euskera y lo
utilizan como idioma de
trabajo.

BARAÑAINGO ZUHAITZAK – ÁRBOLES DE BARAÑAIN



Gingko
Ginkgoa | *Ginkgo biloba*
Fosil biziduntzat hartzen da.



Artea
Encina | *Quercus ilex*
Eskualde mediterranean



Artelatza
Alcornoque | *Quercus suber*
Bertako espezie hau apaingarri



Zetaren arbola
Árbol de la seda | *Albizia julibrissin*



Sekuoia erraldoia
Secuoya gigante |
Sequoiadendron giganteum



Intxaurrendoa
Nogal | *Juglans regia*
Jatorriz Europako

Barañaingo Udalaren eta Sahats Fundazioaren arteko 2023ko Elkarlan Hitzarmenaren sinatze ekitaldia.

(2023-2027 legegintzaldia;
Maria Lecumberri Bonilla alkate)



**Firma del Convenio de
Colaboración de 2023, entre
el Ayuntamiento de
Barañain y la Fundación
Sahats Fundazioa.**
(Legislatura 2023-2027;
alcaldesa **María Lecumberri
Bonilla**)

(Argazkia / Foto: Euskara arloa)

Sahatsa da loratzen lehena

Hala entzun izan dugu beti etxean, eta hala da, Euskal Herri "berdean" behintzat, almendrorik gabeko euskal lurraldean. Barañainen ere, hala gertatu zen 1975-1976 ikasturtean, orduan hasi baitziren Sahatsen bertako zenbait herritar alfabetatzen eta euskalduntzen. Bide luze eta emankorra egin du harrezkero orduko gau-eskola xume hark, eta milaka batzuk zarete azken mende erdi honetan Sahats euskaltegian nafarron jatorrizko hizkuntza ikasten ibili zaretenak, aitzakia merkeak baztertuta, zeuen burua euskaldundu duzenak, gaur egunean bizitzaren alor guztietan euskaraz bizitzen ahalegintzen zaretenak. Bejondeizuela! Eredu zarete herri euskalduna helburu dugun guztiontzat.

Baina euskalduntze bide horretan geratu zaretenon ahalegina ere txalotu nahi dugu, bai horixe, hemen ez baita porrotik izan, garaipen txikiagoak edo handiagoak baizik. Azken batean, denon ekarria ezinbestekoa da Barañain euskalduna osatzeko auzolan honetan. Esker mila, eta badakizue non gaituzuen, erdizka utzitako prozesu horretan sakontzeko.

Herria euskalduntzeko lantegi horretan euskaltegian irakasle aritu zareten eta ari zareten guztiok ere gogoan zaituztet. Asko gara ia berrogeita hamar urte hauetan langintza eder honetan jardun dugunok eta oraindik ere badihardugunok. Egia esan, gure ibilbidea gorabeheratsua bezain esker onekoa izan da, gogorra bezain pozgarria. Eta ez dugu saltzeko! Ezta hurrik eman ere. ari garela, guk nahi baino makalago eta nekezago bada ere, baina euskaltzaletasuna egunetik egunera hedatzen ari da Barañainen.

Unerik gogorrenetan ere, ordea, herritar askoren eta askoren hauspoa izan du euskaltegiak, aurrera egiteko, amore ez emateko, hortzak estutu eta bere lanean segitzeko. Esker mila, zuei guztioi, bihotz-bihotzez. Zuen bultzadari esker iritsi gara honaino, haize kontra, askotan, eta haize alde, noiz edo noiz. Etorkizunean ere zuen babesa eta laguntza ezinbestekoa izango da, eta badakigu 50 urteko sahats honek izango duela zaindaririk.

Honenbestez, 2025-2026 ikasturtean betiko euskalduntze lanean buru-belarri aritzeaz gain, IKAKo Sahats euskaltegiak mende erdia beteko duela merezi bezala ospatzen saiatuko gara, zuekin guztiokin batean, egunen batean herritar guztiak euskaldundu direlako sahats zahar honen itzalaren beharrik izango ez dugulakoan. Euskaraz, ikas eta ari!

(Joxerra Olano, Bai euskarari egitasmoaren kudeatzailea/ Gestor proyecto Bai euskarari)

**Langile elebidunak
arreta euskaraz
eskaintzeko
prestatuta daude;
beraz, erabili euskara
udalarekin dituzun
harremanetan.**



**El personal bilingüe
está preparado
para atender en
euskera a la
ciudadanía que así
lo desea.**



(Argazkia/ Foto: Agustin Peña)

ZIURTAGIRIA 2023 jaso duten entitateak

Entidades que han obtenido el CERTIFICADO 2023

* BIDEAN:

1. Abodi albaitariza zentroa
2. Altxe Gestión/Kudeaketa
3. Andrómeda Belardenda/Herbolario
4. Arritxu ileapaindegia/ Peluquería
5. Barañaingo Contigo-Zurekin (**berria**)
6. Barañaingo Euskal Kantak
7. Barañaingo Geroa Bai
8. Barañaingo Izquierda Unida/Ezker Batua
9. Barañaingo Podemos-Ahal Dugu
10. Coral Barañain Abesbatza
11. Cubillas-Barricart Botika - Beatriz
12. Gogorza Anaiak harategia/Carnicería
13. Haize Artean (jubilatuen elkarte/ Club de Jubilados Entrevientos) (**berria**)


14. Iratxo Taberna
15. Kaioa Café-Bar/ Taberna
16. Karrape taberna Los Porches
17. Larrain elkarte
18. Lurgorri Taberna Jatetxea
19. Muruzabal Bizikletak/ Bicycletas
20. Oihalak (**berria**)
21. Patxi Sagardotegi Ibiltaria (**berria**)
22. Sada Hortz Klinika /Clínica dental
23. Tantatic Diseinu eta Garapena/ Diseño y Desarrollo
24. Tecniauto Auto Lantegia/Taller coches
25. Txaranga Igandea elkarte
26. Viajes Marfil S.L.

* ZERBITZUA EUSKARAZ:

27. Akelamendi Elkarte
28. Alaitz Guraso Elkarte-Apyma
29. Barabatu Barañaingo Batukada
30. Barañaingo Jai Batzordea
31. Barañaingo Trikitilari Eskola
32. EH Bildu Barañain
33. Mugarri Guraso Elkarte
34. Plazaberri Elkarte

* ZERBITZUA eta LANA EUSKARAZ:

35. Haizea Kultura Elkarte
36. Harizti Barañaingo Dantza Taldea
37. Itsaso Bakedano (Sexologia kontsulta) (**berria**)
38. Sahats Fundazioa




BARAÑAINGO ZUHAITZAK – ÁRBOLES DE BARAÑÁIN



Gingko
Ginkgoa | *Ginkgo biloba*
Fosil biziduntzat hartzen da.



Artea
Encina | *Quercus ilex*
Eskualde mediterranean



Artelatza
Alcornoque | *Quercus suber*
Bertako espezie hau apaiagarri



Zetaren arbola
Árbol de la seda | *Albizia julibrissin*



Sekuioa erraldoia
Secuoya gigante | *Sequoiadendron giganteum*



Intxaurrendoa
Nogal | *Juglans regia*
Jatorriz Europako



Ayuntamiento de Barañain
Barañaingo Udala

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera
barañain.eus

Lurgorri 12-14
(Liburutegia/Biblioteca)
Tel.: **948 286 309**
euskaraz@baranain.com

BARAÑAIN 23
BERRIPAPERA
BARAINAIN



Oficina
BAI EUSKARARI Bulegoa
IKA Sahats Euskaltea
Haraneko etorb. 2, behea
Avda. del Valle 2, bajo
Tel. **620 993 098**

Barañaingo Udalaren eta Sahats Fundazioaren arteko 2023ko Elkarlan Hitzarmenaren sinatze ekitaldia.
(2023-2027 legegintzaldia;
Maria Lecumberri Bonilla alkate)



(Argazkia / Foto: Euskara arloa)

Firma del Convenio de Colaboración de 2023, entre el Ayuntamiento de Barañain y la Fundación Sahats Fundazioa.
(Legislatura 2023-2027;
alcaldesa **María Lecumberri Bonilla**)

Argi-itzalak

Ez omen dago zorion beterik, ez poz erabatekorik. Are gutxiago gure hizkuntza lehengoratzeko lan eder honetan. Horren jakitun gara Euskal Herri osoan euskara bizitzaren alor guztietan nagusi izatea nahi dugunok, gure herrian gure hizkuntzan bizi ahal izatea helburu dugunok, euskaldunon herriak bizirik irautea xede dugunok.

Eta badugu pozteko motiborik azkenaldian Barañainen; izan ere, beste behin ere euskarak batzen gaituela ikusi genuen martxoaren 22an Bai Euskarari ziurtagiriak emateko Barañaingo udaletxean egin genuen ekitaldi xume bezain esanguratsuan. Herriko 38 entitatearen ordezkariak Barañaingo Udalean ordezkaturik dauden alderdi politiko guzti-guztietako hainbat zinegotziren eta alkatearen eskutik jaso baitzuten euskararen erabilera handitzeko urratsak egiten ari direla egiaztatzen duen agiri hori. Bejondeiela, guztiei, lehendik ere ziurtagiridun direnei eta aurten proiektu honetara bildu direnei. Zuen ahaleginean bidaide eta laguntzaile saiatu izanen gaituzue, azken 22 urte hauetan bezalaxe, eta Barañaingo euskaltzale guztion babesa eta bultzada ere izanen duzue.

Bestalde, gero eta gehiago dira Barañaingo IKAREN Sahats euskaltegian euskara ikasten edo hobetzen ari direnak eta seme-alabak D ereduan eskolatzen dituztenak. Euskaltegiari dagokionez, % 28,41 hazi da azken lau ikasturteetan ikasle-ordu kopurua. Euskaraz ikasteko, D ereduan, izena emandako haurren kopurua aurten % 37koa dugu. Argi dago, beraz, aurrera egiten ari garela, guk nahi baino makalago eta nekezago bada ere, baina euskaltzaletasuna egunetik egunera hedatzen ari da Barañainen.

Baina kezkatzeok ere baditugu: udala oraindik ere ez da herritar euskaldunoi zerbitzu guztiak euskaraz emateko gauza, euskara – sinesteak ere lanak ditu – ez da ofiziala Nafarroa osoan, zenbait alderdi politiko eta sindikatuk euskararen kontrako jarrerak erakusten dituzte interes politiko eta pertsonalak direla medio, euskara ez dago alderdi politiko ustez euskaltzaleen lehentasun politikoaren artean, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika ez da egokia, euskararen aurkako erabaki judizialen zaparradak ez du atertzeko itxurarik, euskararen aldeko zenbait taldek diskurtso desegokiak darabiltzate...

Azken batean, zoritxarrez, Nafarroa Garaiko herritar euskaldunak oraindik ere gure bizitokiaren arabera bigarren, hirugarren edo laugarren mailako herritarrak gara administrazioaren zerbitzuak jasotzean. Zergak ordaintzeko garaian, ordea, bai, lehenengo mailakoak gara. Bidegabekeriak ez du etenik, eta ez dirudi politikari profesionalek hori horrela izan ez dadin deus egiteko asmorik dutenik.

Hortaz, geure bideari eutsi beharko diogu, orain arte bezala, ez baikara amore erraz ematekoak, zorionez. Eta erdaldunak erakartzen segituko dugu. Euskara irakasten, ikasten eta erabiltzen. Nonahi eta nornahiri lehenengo hitza euskaraz egiten. Euskaldunarekin beti euskaraz mintzatzen. Euskarazko kultur produktuak hobesten. Euskaraz eskaintzen zaizkigun produktuak edo zerbitzuak lehenesten. Administrazioaren zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea dugula aldarrikatzen. Euskararen aldeko mobilizazioak antolatzen eta horietan parte hartzen. Eta abar, eta abar. Oztopo guztien gainetik, haize kontra edo haize alde, argi-itzalak gorabehera.

(Joxerra Olano, Bai euskarari egitasmoaren kudeatzailea/ Gestor proyecto Bai euskarari)

Langile elebidunak arreta euskaraz eskaintzeko prestatuta daude; beraz, erabili euskara udalarekin dituzun harremanetan.



El personal bilingüe está preparado para atender en euskera a la ciudadanía que así lo desea.



(Argazkia: Euskara arloa / Foto: Área de euskera)

ZIURTAGIRIA 2022 jaso duten entitateak

Entidades que han obtenido el CERTIFICADO 2022

* BIDEAN:

1. Andrómeda Belardenda/Herbolario
2. Arritxu ileapaindegia/ Peluquería
3. Euskal Kantak
4. Geroa Bai
5. Altxe Gestión/Kudeaketa
6. Centro Veterinario ABODI
7. Coral Barañain Abesbatza
8. Larrain elkarte
9. Cubillas-Barricart Botika – Beatriz
10. Gogorza Aniak harategia/Carnicería
11. Iratxo Taberna
12. Izquierda Unida/Ezker Batua
13. Kaioa Café-Bar/ Taberna
14. Karrape taberna Los Porches
15. Lurgorri Taberna Jatetxea
16. Muruzabal Bizikletak/ Bicycletas
17. Podemos-Ahal Dugu
18. Sada Hortz Klinika / Clínica dental
19. Studio Liburudenda/Librería
20. Tantatic Diseinu eta Garapena/ Diseño y Desarrollo
21. Tecniauto Auto Lantegia/Taller coches
22. Txaranga Igandea elkarte
23. Viajes Marfil S.L.

* ZERBITZUA EUSKARAZ:

24. Akelamendi Elkarte
25. Alaitz Guraso Elkarte-Apyma
26. Barabatu Barañaingo Batukada
27. Jai Batzordea
28. Trikitilari Eskola
29. Jauzi taldea
30. EHBildu Barañain
31. Mugarri Guraso Elkarte
32. Plazaberri Elkarte

* ZERBITZUA eta LANA EUSKARAZ:

33. Haizea Kultura Elkarte
34. Harizti Barañaingo Dantza Taldea
35. Sahats Fundazioa



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que han adoptado y están desarrollando medidas para el uso del euskera.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera y lo utilizan como idioma de trabajo.

BARAÑAINGO ZUHAITZAK – ÁRBOLES DE BARAÑAÍN




Gorostia
Acebo | *Ilex aquifolium*



Elorri zuria
Espino blanco | *Crataegus*



Ezki
Tilo | *Tilia tomentosa*



Zumarra
Olmno | *Ulmus pumila*



Urki
Abedul | *Betula pendula*



Pagoa
Haya | *Fagus sylvatica*

**Barañaingo Udalaren eta
Sahats Fundazioaren arteko
2022ko Elkarlan
Hitzarmenaren sinatze
ekitaldia.**
(2019-2023 legegintzaldia;
Maria Lecumberri Bonilla alkate)



(Argazkia / Foto: Euskara arloa)

**Firma del Convenio de
Colaboración de 2022, entre el
Ayuntamiento de Barañain y la
Fundación Sahats Fundazioa.**
(Legislatura 2019-2023;
alcaldesa **María Lecumberri Bonilla**)



Hitz egin euskaraz



EUSKARA NAFAROAN



EL EUSKERA EN NAVARRA

Historikoa

"Zerbaiten historian geroko gordea izatea merezi duena", halaxe definitzen du Euskaltzaindiaren Hiztegia-k historiko hitza 2. adieran. Egia esan, ez naiz ni inoiz hitz hori erabili zale izan, adinean aurrera goazenok gogoan baitugu askotan arinegi jotzen zituztela zenbaitek uenean uneko gertaerak historikotzat, herritar xumeok zeozer egin genezan akuilatu nahian. Oraingoan, ordea, ez zait besterik bururatzeko euskararen ofizialtasunaren gainean iazko irailaren 16an Euskararen Nafar Kontseiluak kontrako botorik gabe onartu zuen adierazpena aipatzeko garaian: adierazpen historikoa. Izan ere, euskara Nafarroa Garai osoan ofiziala izan dadin urratzen ari garen bide luze horren historian agiri hori geroko gordea izatea merezi duelakoan nago.

Euskararen Nafar Kontseilua Nafarroako Gobernuaren organo aholku-emailea da, eta 33 kidek osatzen dute: gobernuko bost goikarguk, gobernuak izendatutako 10 kidek, euskararen eta euskal kulturaren eremuan izen ona dutenak, Nafarroako Foru Parlamentuak proposatutako bost lagunek, ordezkari iraunkorra duten zortzi erakunde edo entitatetako ordezkari banak, eta, azkenik, euskara sustatzen duten herri ekimeneko bost elkarte edo talderen kide banak. Tartean dira, besteak beste, Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria, Euskarabideko zuzendari kudeatzailea, Navarra Suma, Izquierda-Ezkerra, Ahal Dugu, EH Bildu eta Geroa Baien parlamentuko taldeen ordezkari bana, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Nafarroako Ikastolen Elkarte, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua, Nafarroako Kazetarien Elkargoa eta...

...Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa, Hizkuntz Eskubideen Behatokia, Topagunea, Sortzen, AEK eta IKA. Askotariko ordezkari, bai horixe!

Eta honela dio Euskararen Nafar Kontseiluak onetsi zuen adierazpen historiko horren azken paragrafoak: "Horregatik guztiagatik, adierazpen honen bidez, **Euskararen Nafar Kontseiluak Nafarroako Gobernuaren premiazten du euskara Nafarroako Foru Komunitate osoan ofiziala izan dadin Euskarari buruzko Foru Legea lehenbailehen aldatzera, herritar euskaldunen legezko bazterzea amaitu dadin eta herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak bete daitezen, herritar eraldunak betetzen diren bezalaxe, jakinki erabaki hori Nafarroako herritar guzi-guziendako onuragarria izanen dela**".

Bada garaia, badenez garaia!

ADIERAZPEN oso irakurtzeko:

DECLARACIÓN del Consejo Navarro del Euskera



(**Joxerra Olano**, Bai euskarari egitasmoaren kudeatzailea/
Gestor proyecto Bai euskarari)

**Langile elebidunak
arreta euskaraz
eskaintzeko prestatuta
daude; beraz, erabili
euskara udalarekin
dituzun harremanetan.**



**El personal bilingüe
está preparado para
atender en euskera
a la ciudadanía que
así lo desee.**



(Argazkia / Foto: Bai Euskarari elkarteak)

ZIURTAGIRIA 2019 jaso duten entitateak

Entidades que han obtenido el CERTIFICADO 2019

* BIDEAN:

1. Andrómeda Belardenda/Herbolario
2. Arritxu ileapaindegia/
Peluquería **(BERRIA)**
3. Euskal Kantak
4. Geroa Bai
5. Gizarte Eskola/ Escuela Social
6. Centro Veterinario ABODI
7. Coral Barañáin Abesbatza
8. Cubillas Botika
9. Cubillas-Barricart Botika – Beatriz
10. Gogorza Anaiak harategia/Carnicería
11. Hegoalde Taberna
12. Iratxo Taberna
13. Izquierda Unida/Ezker Batua


14. Kaioa Café-Bar/ Taberna
15. Karrape taberna Los Porches
16. Lurgorri Taberna Jatetxea
17. Muruzabal Bizikletak/ Bicycletas
18. Podemos-Ahal Dugu
19. Sada Hertz Klinika / Clínica dental
20. Studio Liburudenda/Librería
21. Tantatic Diseinu eta Garapena/
Diseño y Desarrollo
22. Tecniauto Auto Lantegia/Taller coches
23. Txaranga Igandea elkarteak
24. Viajes Marfil S.L.

* ZERBITZUA EUSKARAZ:


25. Akelamendi Elkarteak
26. Alaitz Guraso Elkarteak-Apyma
27. Barabatu Barañaingo Batukada
28. Gazte Asanblada
29. Jai Batzordea
30. Trikitilari Eskola
31. JAUZI taldea **(BERRIA)**
32. EHBildu Barañáin
33. Mugarri Guraso Elkarteak
34. Plazaberri Elkarteak

* ZERBITZUA eta LANA EUSKARAZ:


35. Hagin Erakunde Feminista
36. Haizea Kultura Elkarteak
37. Harizti Barañaingo Dantza Taldea
38. Sahats Fundazioa



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que han adoptado y están desarrollando medidas para el uso del euskera.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera y lo utilizan como idioma de trabajo.

Aplikazio berri bat garatu dute CodeSyntaxen, galdera-erantzunen joko bat: **Egunean Behin**. Bakarka edo taldean jokatzeko prestatua, euskaraz. Android mugikorretan zein iPhoneetan instala daiteke.

Anima zaitetz(te)! eta jolastu euskaraz!

Egunean Behin es un juego de preguntas y respuestas en euskera. Cada día se juega una única partida, donde hay que contestar a 10 preguntas, lo antes posible. Cuantas más respuestas acertadas, en el menor tiempo posible, mejor.



egunean behin?

Galdera-erantzunen euskarazko jokoak

Egunean Behin partida, Astean Behin **SARIA!**

Partida 9 / 10
OSTEGUA 15:25
6:10
Zer herritako da argazki hau?
Iratxo
Batzordea
Batzordea

App Store
Google play

Barañaingo Udalaren eta Sahats Fundazioaren arteko 2019ko Elkarlan Hitzarmenaren sinatze ekitaldia.
(Egungo 2019-2023 legegintzaldia; **Maria Lecumberri Bonilla** alkate)



(Argazkia / Foto: Euskara arloa)

Firma del Convenio de Colaboración de 2019, entre el Ayuntamiento de Barañáin y la Fundación Sahats Fundazioa.
(Legislatura actual, 2019-2023; alcaldesa **María Lecumberri Bonilla**)



Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura

<https://www.ethnologue.com/guides/how-many-languages>
<https://www.ethnologue.com/guides/ethnologue200>

Moseley, Christopher (ed.). 2010. *Atlas de las lenguas del mundo en peligro*, 3ra edición. París, Ediciones UNESCO. **Versión en línea:** Atlas interactivo de las lenguas del mundo clasificadas en grados de vulnerabilidad (entre ellas encontraréis el euskera, lengua propia de Navarra).

<http://www.unesco.org/culture/en/endangeredlanguages/atlas>

<https://ukdataexplorer.com/european-translator/>



Jantziago, euskaldunago

Edo "euskaldunago, jantziago" pentsatuko zuen batek baino gehiagok, 15 urtetik gorako herritar nafarren ingeles eta frantses mailaren berri ematen zuen inkestaren datuak ikustean hedabideetan, orain dela gutxi. Izan ere, Nafarroako Estatistika Erakundeak egindako ikerketaren arabera, gehiago dira ingeles edo frantses gutxi-asko dakitenak euskaldunen artean euskararik ez dakiten herritarren artean baino, alegia, ingelesean eta frantsesean ere jantziago gaude euskaldunak euskaraz ez dakiten herritarrak baino. Ezin esan horrek harritu gaituenik, politikari erdaldun elebarkarrei entzuten dizkiegun ingelesaren gorazarreak gorabehera.

Baina izenburuko "jantziago, euskaldunago" hori duela 27 urte pasatxo IKA euskaltegi sareak erabili zuen eslogana da. 1992ko irail hartan, "jantzi" aditzaren beste adiera bat ikasi zuten askok, euskaraz "jantzera" euskaltegiara etortzeko gonbita hura zela eta.

Eta nago gaur egunean orduan bezain beharrezkoa dugula euskaldunok euskaraz jantzi, trebatze, gaitze eta eguneratze lan hori, bizitzaren alor guztietan gure hizkuntzan erraz eta egoki ari gaitezen.

Ez baitira gutxi, oraindik ere, euskaraz alfabetatu ez direnak, irakurtzeko eta idazteko zailtasunak dituztenak, ikasketak euskaraz egin ondoren hizkuntza herdoildu zaienak, euskaraz ikasten hasi eta behar adina ikasi ez zutenak, lanean euskaraz aise aritzeko trebatu behar dutenak...

Ezinbestekoa baita euskaraz ongi jakitea, nonahi eta noiznahi erabili ahal izateko, euskaraz eroso bizi ahal izateko. Eta horretarako aski da norberak hala egingo duela erabakitzea eta etxe ondoan dugun Sahats euskaltegiara jotzea, Barañaingo herritarrak gero eta jantziago eta euskaldunago izan gaitezen. Hala bedi!

(Joxerra Olano, *Bai euskarari egitasmoaren kudeatzailea/ Gestor proyecto Bai euskarari*)

Langile elebidunak arreta euskaraz eskaintzeko prestatuta daude; beraz, erabili euskara udalarekin dituzun harremanetan.



El personal bilingüe está preparado para atender en euskera a la ciudadanía que así lo desea.



(Argazkia / Foto: Euskara arloa/Área de euskera)

ZIURTAGIRIA 2018 jaso duten entitateak

Entidades que han obtenido el CERTIFICADO 2018

* BIDEAN:

1. Andrómeda Belardenda/Herbolario
2. Barañáin Auditorioa Fundazioa/
Fundación Auditorio Barañáin
3. Euskal Kantak
4. Geroa Bai
5. Gizarte Eskola/ Escuela Social
6. Centro Veterinario ABODI
7. Coral Barañáin Abesbatza
8. Cubillas Botika
9. Cubillas-Barricart Botika – Beatriz
10. Gogorza Anaiak harategia/Carnicería
11. Hegoalde Taberna
12. Iratxo Taberna
13. Izquierda/Ezkerra

14. Kaioa taberna
15. Karrape taberna Los Porches
16. Lurgorri Taberna Jatetxea
17. Muruzabal Bizikletak/ Bicycletas
18. Participando en Barañáin/
Barañáin parte hartzen
19. Sada Hortz Klinika / Clínica dental
20. Studio Liburudenda/Librería
21. Tantatic Diseinu eta Garapena/
Diseño y Desarrollo
22. Tecniauto Auto Tailerra/Taller coches
23. Txaranga Igandea
24. Viajes Marfil (**BERRIA**)

* ZERBITZUA EUSKARAZ:

25. Akelamendi Taberna
26. Alaitz Guraso Elkarteak-Apyma
27. Barabatu Barañáingo Batukada
28. Gazte Asanblada
29. Jai Batzordea
30. Trikitilari Eskola
31. EHBildu Barañáin
32. Mugarri Guraso Elkarteak
33. Plazaberri Elkarteak

* ZERBITZUA eta LANA EUSKARAZ:

34. Hagin Erakunde Feminista
35. Haizea Kultura Elkarteak
36. Harizti Barañáingo Dantza Taldea
37. Sahats Fundazioak



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que han adoptado y están desarrollando medidas para el uso del euskera.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera.



Certificado dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera y lo utilizan como idioma de trabajo.

Zer da Mastodon?

Mastodon web protokolo ireki eta libreak darabiltzan gizarte sare bat da. E-mail sarea bezala deszentralizatu da.

500 karaktere dituzu eskura, edukia xehetasunez kudeatu daiteke eta multimediari abisuak jarri, adierazi zure burua zure erara.

iOS, Android eta beste plataformetarako aplikazio ugari, eta garatzaileentzako erabilerraza den API ekosistema bati esker beste plataforma batzuetako lagunekin aritzeko aukera.



"(...) si muchos idiomas minoritarios consiguen sobrevivir hasta el siglo XXI, ello es debido al trabajo indefectible por parte de asociaciones y militantes que estimularon a las autoridades políticas. (...)"

JACQUES GUYOT

Profesor de Ciencias de la Información y de la Comunicación
Director del CEMTI (Centre d'Études sur les Médias, les Technologies et l'Internationalisation) - Universidad de Paris

"Ama hizkuntza dut gaztelania, baina ez da gure hizkuntza"

SERGIO MARINAO (Maputxea)



AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN
BARAÑAINGO UDALA



Udalaren euskara
zerbitzua
Servicio municipal
de euskera

Lurgorri 12-14
(Liburutegia/Biblioteca)
Tel.: 948 286 309
euskaraz@baranain.com
baranain.eus

18 Berripapera



Oficina
BAI EUSKARARI Bulegoa
IKA Sahats Euskaltegia
Haraneko etorb. 2, behe
Avda. del Valle 2, bajo
Tel. 620 993 098

baieuskararibaranain@gmail.com

Barañaingo Udalaren eta Sahats Fundazioaren arteko 2018ko Elkarlan Hitzarmenaren sinatze ekitaldia.

(2015-2019 legegintzaldia;
Oihane Indakoetxea
Barberia alkate)



(Argazkia / Foto: Euskara arloa)

Firma del Convenio de Colaboración de 2018, entre el Ayuntamiento de Barañáin y la Fundación Sahats Fundazioa.

(Legislatura 2015-2019;
alcaldesa Oihane
Indakoetxea
Barberia)



Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura

Moseley, Christopher (ed.). 2010. *Atlas de las lenguas del mundo en peligro*, 3ra edición. París, Ediciones UNESCO. **Versión en línea:** Atlas interactivo de las lenguas del mundo clasificadas en grados de vulnerabilidad. Entre ellas encontraréis el euskera, lengua propia de Navarra.

<http://www.unesco.org/culture/en/endangeredlanguages/atlas>

Ezer berririk ez eguzkipean

Ez da oraingotzekoa lagun euskaltzale saiatu batek helarazi didan gutuna. Hautsez betetako paper zaharrak arakutzen ari zela, Barañaingo denda, taberna eta abarretan euskara gehiago erabil dadin egiten ari garen ahaleginak etorri omen zitzaizkion gogora. Izan ere, 1932ko eskutitz bat iritsi zitzaion eskuetara, Euskararen Adiskideak izeneko elkarte nafarrak Iruñeko dendariei igorria, 1925ean sortu zuten talde haren ekimen baten berri emateko.

Euskaraz mintzatzen da zioten kartelak eginak zituztela azaltzen zioten euskararen benetako adiskide haiek dendaren jabeari, eta saltoki hartan euskaldunik baldin bazen, afixa hura erakuslehoan jartzeko eskatzen, euskaraz baino mintzo ez ziren edo gaztelaniaz nekez aritzen ziren herritar euskaldunek non erosi jakin zezaten. Horra orain dela 87 urteko *Bai Euskarari Ziurtagiria*.

Bestalde, kartela agerian paratzen zuten denden zerrenda osatu eta Nafarroako hainbat udaletara igorriko zutela zioten euskararen aldeko lanean jo eta su ari ziren *adiskide* haiek, erosle euskaldunek Iruñean euskaraz zer dendatan egin zezaketen jakinaren ganean jartzeko. Horra irakurtzen ari zaren *Berripaper* honen aitzindaria.

Garbi dago, beraz, euskararen oraingo adiskideok deus berririk ez dugula asmatu eta euskararen erabilera handitzeko bide hau guk baino lehenago beste batzuek urratu zutela. Ea beste 87 urte igaro aurretik euskara nagusi dugun gure herrian eta euskaraz nonahi egin dezakegun. Ez litzateke euskararen adiskide haiek eta gure aurreko euskaltzale guztiak omentzeko modu txarra.

(Joxerra Olano, *Bai euskarari egitasmoaren kudeatzailea/ Gestor proyecto Bai euskarari*)

Langile elebidunak arreta euskaraz eskaintzeko prestatuta daude, edota euskalduntze prozesuan aurreratuta; beraz, erabili euskara udalarekin dituzun harremanetan.



El personal bilingüe,
y aquél que está avanzado en el
proceso de aprendizaje del
euskera, está preparado para
atender en euskera a la ciudadanía
que así lo decida.